

II JON PAUL ALTA SANTUA (EUSKERAZ LOIOLA'N)

(G.B.)

Atariko idaz-lantxu au idazten nagoan aldia, garrantzi aundikoa da gure Eleizearentzat: Urriñeko Polonia'tik etorri eta 26 urtean Arduradun Nagusi izan dogun aitasantua Erroma'ko Kepa Deunaren eleizan dago zerraldo eta kardinalak (117) Erroma'n alkartuta dagoz Aita Santuaren illetea egin eta laster "giltzape"ra sartu eta aitasantu Barria aukeratzeko.

Gauza asko esan bearke geunkez 2005-04-02 egunean(21`37n minutuan) il jakun aitasantu oneri buruz, baiña ori ez da une onetarako zeregin egokia. Nik bakar-bakarrik gogoratu nai dodaz aitasantu onek Loiola'n eta Xabier'en izan zan egun areitan, Loiola'n bertan esan ebazan berba laburrak:

**"Euskal Erriko kristau maiteok:
Bakea zuoi eta zorionak"
"Guztioi nere agurrik beroena"**

Berba euskeraz egitean ikusi bear dogu aitasantuak izan eban, gugana, errira sartzeko gogo bizia, eta berak gure erriarentzat daukan biotzik onena.

Egia da gure lurralde onetara eldu zanean ez eutsola mun egin gure lurrari, beste errietan egiten dauan lez, baiña orreik politikearen arazoak dira, zori txarrez, ori erri lez artzen ez gaituelako da, baiña aitasantuaren arazoa baiña geiago España'rena dala argi dago.

Betiko zoriona izan dagiala ogeitasei urtetan zaindu gaituan artzaiñak eta unengo izango dana be artzain egokia izan daitela.

OLAZAR'tar Martin'ek

